



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Kodea:
2026AAH20004

Lankidetza Hitzarmena

Espediente zk.: 2026AAH20004

Gaia: Leizaran Eskubaloia Kkren arteko Lankidetza Hitzarmena

Eskatzailea: Leizaran Eskubaloia KK **IFK:** G20539474

ZUZENeko DIRU LAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO HITZARMENA

Andoainen, sinaduraren datan.

Bildurik:

B atetik, **Andoni Alvarez Lete** jn., Andoaingo Udaleko Alkatea, Andoaingo Udalaren izenean eta ordezkari gisa, Toki Jaurpideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legean xedatutakoaren arabera.

Eta bestetik, **Eva Gutierrez Cuesta** and., NA ***8575** duena, LEIZARAN ESKUBALOA KKko lehendakari gisa.

Bertan da baita ere Udaleko idazkaria den **Unai Recondo Pérez** jn. egintzaren fede emateko.

Bi aldeek elkarri behartzeko nahikoa gaitasun juridiko aitortzen diote eta jarraian aipatzen denaren arabera ekiten dute:

Administrazioko aurrekariak

1. Andoaingo Udalak 2026-2028 aldirako DPE-Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen 2026-05-27ko 2026/1500 alkate-dekretuaren bitartez.
2. Leizaran Eskubaloia KK irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta eskubaloiaaren praktika sustatzea du helburu.
3. Leizaran Eskubaloia KK elkarteko taldeek Allurralde kiroldegiko kantxan entrenatzen dute.
4. Elkarreak aurtengo denboraldian, 2025-2026, zenbat talde dituen lehian ikusita, bigarren kantxa bat eskatu dute denboraldiari aurre egiteko behar diren gutxieneko entrenamenduak egin ahal izateko.
5. Andoaingo Udalak Urnieta eta Lasarte-Oriako Udalei eskatu die beraien kirol instalazioen bat erabili ahal izatea Leizaran Eskubaloia KK elkarteko talderen batzuen entrenamendurako 2025-2026 denboraldian.



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Kodea:

2026AAH20004

Lankidetza Hitzarmena

6. Leizaran Eskubaloia KK elkarteko zenbait taldek Urnietako kirol instalazioak erabiltzen ari dira asteko hainbat egun eta ordutegitan.
7. Leizaran Eskubaloi Kirol Elkarreak diru laguntza eskatu dio Andoaingo Udalari entrenamendu hauetara joan etorriko gastuei aurre egiteko.
8. Andoaingo Udalari eta organo emaileari jarduteko eskumena ematen dien araudiak honako hauek dira: 2/2016 Legearen, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena, 17.1.19 artikulua, 38/2003 Lege Orokorraren, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa 9.4 artikulua eta 40/2025 Legearen, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa 21.1 artikulua.
9. Urnietako udalerrirako garraio-gastuak ordaintzeko Leizaran Eskubaloi Klubari emandako dirulaguntza guztiz bat dator dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2.1 artikuluan eskatutako baldintzekin, honako argudio hauetan oinarrituta:
 - a) Kontraprestazio zuzenik eza: Erakundearen ekarpen ekonomikoa itzuli beharrik gabe egiten da klubaren jarduerari eusteko, eta Administrazioak ez du trukean kontraprestazio edo zerbitzu komertzialik jasotzen.
 - b) Izaera finalista eta afektazioa: Funtsak ekipoen joan-etorrien kostuen finantzaketari bakarrik lotuta daude, Andoaingo udalerrian kirol-instalazio egoki eta homologaturik ez dagoelako.
 - c) Justifikatzeko betebeharra: Klubak hitz ematen du funts guztiak erabili dituela egiaztatzeko, bidaiari-garraioko enpresen fakturak eta ordainagiriak aurkeztuta, baimendutako entrenamenduen eta partiden egutegiari hertsiki lotuta.
 - d) Interes soziala eta onura publikoa: Laguntza ezinbestekoa da udalerriko gazteek kirola egiten jarraituko dutela bermatzeko, tokiko azpiegituren gabezia aldi baterako arinduz. Horrekin, osasuna eta oinarritzko kirol federatua sustatzen dira, eta eragindako kirolarien familientzako kalte ekonomiko diskriminatzailea saihesten da. "

Horregatik, bi aldeak ados daude hitzarmena sinatzeko, eta honako oinarrien arabera egingo dute:

Hitzbaketak

1. HITZARMENDAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da 7.002,76 euroko diru laguntza emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, Leizaran Eskubaloi KK elkarteko hainbat taldek 2025-2026 denboraldian Urnietako kirol instalazioetan egindako entrenamenduen garraioak eragindako gastuak ordaintzeko.



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Kodea:
2026AAH20004

Lankidetza Hitzarmena

2. AURREKONTUA ETA FINANTZIAZIOA

Diru laguntzaren gehieneko diru-kopurua 7.002,76 eurokoa izango da, udal aurrekontuetako 1.1000.481.342.00.04.2026 partidaren kargura joango dena.

3. HITZARMENAREN IRAUPENA

Lankidetza hitzarmen hau indarrean sartuko da hitzarmena sinatzen den egunetik eta horren likidazio zuriketa egiten denean, amaituko da.

4. ANDOAINGO UDALAREN KONPROMISIOAK

Leizaran Eskubaloia KK elkarteari 7.002,76 euroko diru laguntza ordainduko zaio era honetan: 4.201,66 euro (%60a), hitzarmena sinatu ondoren, eta dirulaguntzaren diferentzia, 2.801,10 euro (%40a) ezarritako epean aurkeztu behar duten likidazioa eta zurigarriei oniritzia eman ondoren.

5.- LEIZARAN ESKUBALOIA KK KIROL ELKARTEAREN KONPROMISOAK.

Hitzarmen honi jarraiki diru laguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

- a) Urnietako instalakuntzen erabilerari buruzko betebeharrak:
 - Talde horietako jokalariek Urnietako Udalaren kirol instalazioetako arduradunen oharrak errespetatu beharko dituzte beti.
 - Edozein arrazoiengatik adosturiko egun horietako batean instalazioak erabiliko ez balira, Andoaingo Udalaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zerbitzuko kirol teknikariari jakinaraziko diote aldez aurretik.
 - Jokalariek instalazioetan sortzen dituzten kalteen ardura elkartearena izango da.
- b) Diru laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzan eta azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta lege hori garatzen duten arauak ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:
 - Diru laguntza eman duen erakundeak justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru laguntza emateak zehazten duen helburua beteko duela.
 - Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta Leizaran Eskubaloia KK-ak eskatzen zaion informazioa ekarriko du.



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Kodea:

2026AAH20004

Lankidetza Hitzarmena

- Beste diru laguntza batzuk jasotzen baditu diru laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinarazi beharko da jakin bezain laster, eta hala balegokio, hartu beharreko diru kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Hitzarmena sinatu baino lehenago, eta ordainketak egiteko, zerga-betebeharretan, gizarte segurantzaren arlokoetan eta Andoaingo udalenetan egunean daudela egiaztatu beharko dute.

- Diru laguntzaren emakidan kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.

- Udal ordenantzaren 25. artikuluan aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzultzeari ekin.

c) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 25. artikuluari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, beren gobernu-jarduna zuzenduko dute, herritarrek jarduera fisikoa eta kirola egin ahal izateko euskararen erabilera sustatzeko.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jotatuko du.

Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz zabaldutako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari emango zaio lehentasuna.

Espresuki haur eta gaztetxoentzat diren mezuak nahiz ekitaldiak euskaraz egingo dira.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekoak antolatzen direnean euskara eta beste hizkuntzen arteko oreka bermatuko da. Eskaintzaren erdià, gutxienez, euskaraz izango da, eta gaztelaniaz egiten direnean euskararen presentzia bermatuko da (idatzizko euskarrriak, informazio osagarria, euskaraz galdetzeko aukera bermatzea...). Horrelakoetan aurrez egiten diren iragarkietan zehaztuko da zein hizkuntzatan izango den.

d) Berdintasunerako klausula: Diru laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako testu bateginean ezarririkoak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Kodea:
2026AAH20004

Lankidetza Hitzarmena

Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoa betetzeko, dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak bete direla justifikatzeko memorian sexuaren arabera bereizitako informazioa emango zaie emandako zerbitzuaren azken onuradunei edo erabiltzaileei, erakundearen titularrei eta erakundeko plantillari, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatutako erakundeari.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta genero identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

Udalak bultzaturiko edo hartutako genero indarkeriaren aurkako neurri bereziak edo martxan jarritako kanpainak zabalitzen parte hartze aktiboa izango da.

e) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irratia, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Andoaingo Udalaren lankidetza, esaldi honen arabera: "Andoain Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Andoaingo armarrria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Andoaingo Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

6.- DIRU LAGUNTZARI EGIN BEHARREKO JARRAIPENA ETA JUSTIFIKAZIOA.

Andoaingo Udalak, Jarduera Fisikoa eta Kirol saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru laguntza emateko zehazturiko helburua bete dela.

Diru laguntzaren entitate onuradunak, 2026/09/30 baino lehen, Udalean aurkeztu beharko du diru laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 23.3. artikuluan eskatutako dokumentazioa. Jarduerak, diru laguntzaz gain, finantzatu direnean norberak dituen diru sarrerekin edo bestelako diru laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zen den diru sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

- **Gastuak:** Izandako gastu guztien likidazio zerrenda bat aurkeztuko da eta zerrendan azaltzen den zenbakiarekin bat etorri behar du gastu hori zurtzeko aurkezten dan fakturak.

Likidazioetan onartuko diren gastu zurigarriek, baldintza hauek bete beharko dituzte:

* Fakturak. Informazio fiskala osoa jaso beharko dute, hau da, ematen eta jasotzen dutenaren identifikazioa (izen deiturak, NA edo IZK, helbidea, telefonoa), faktura zenbakia, data, eta BEZ.

ESKU973a9145-646e-41af-b4c7-d6d1ad9d3849



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Kodea:

2026AAH20004

Lankidetza Hitzarmena

- **Sarrerak:** Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa idatziko ere. Sarrera egiaztagarri ofizialik ez dagoenean, emailearen edo hartzailearen zinpeko idatzia aurkeztuko da.

7.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU LAGUNTZA PUBLIKOEKIN.

Hitzarmen honek arautzen duen diru laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartua zein beste batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

8.- HITZARMENA EZ BETETZEA ETA DIRU LAGUNTZA ITZULTZEA.

Diru laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru laguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzan eta Legean. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

9.- DATU PERTSONALAK BABESTEA.

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

10.- LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA.

Diru laguntzaren entitate onuradunak proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

11.- ARAUBIDE JURIDIKOA.



Andoaingo Udala

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Lankidetzaren Hitzarmena

Kodea:
2026AAH20004

Hitzarmen honek administrazioa izatera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Andoaingo udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarrikoa uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrearen Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

12.- ESKUMENEN JURISDIKZIOA.

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, goian adierazitako datan eta tokian.

Udalaren izenean

LEIZARAN ESKUBALOIA KKren izenean

Andoni Alvarez Lete

Eva Gutierrez Cuesta

Idazkaria

Unai Rekondo Pérez



EKS | CSV: ESKU973a9145-646e-41af-b467-d6d1ad9d3849

Verifique el documento con la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

